

Iragankortasunaren inkongruentzia

• IÑIGO SEGUROLA •

[PAISAJISTA]

Azkenaldi honetan, Ibarrolak Oman margotutako basoa berriro izan da albiste. Oraingoan, arrazoia pinudiaren zati batean jabeak eginiko zuhaitzen mozketa izan da, baina orain dela hilabete gutxi batzuk ere, Omako basoa albiste izan zen, Arte Ederretako ikasle batzuek Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzaz pinuetan zeuden margoak berriz margotu baitzituzten.

Bermargotze hau kontuan izanik, badirudi artelan honen benetako esanahia ez dela ulertu. Omako basoa, zalantzarik gabe, ingurugiro artelan bezala sailkatu daiteke. Margoek pinudiarekin bat egiten dute eta beraz, bien arteko menpekotasun hautsiezina dago.

Ingurugiro artea XX. mende bukaerako arte tendentzia interesgarri, fresko eta berria da. 70eko hamarkadan Estatu Batuetan gertatutako *Land Art* mugimenduak, galeria eta museoek eskaintzen zuten espazio mugatuetatik alde egin nahian, beren arte lanak paisaia ireki eta zabaletan ezarri zituen, paisaiak eta artelanak bat eginez. *Land Art*-eko artelanak askotan basamortu edo ingurune kutsatueta ezaritzen zituzten, artea gizakia naturarekin adiskidetzeko lanabes bihurtu zedin.

Land Art-aren ezaugarri komuna duen

eskala handia da, monumentaletik oso gertu. European hedatuko den ingurugiro artelanak, ordea, eskala txikiagokoak dira, kokaturik dauden inguruarekiko menpekotasuna dute, baina hauen izaera galkorra da.

Richard Long, David Nash eta Andy Goldsworthy dira Europako mugimenduaren ordezkari nagusiak. Horien guztien artelana iragankorra da, eta beraz, beren izaera denboran mugatua dago. Paisaia eta natura etengabe aldatzen ari

dira eta aldaketan dartzatza paisaiaren benetako izaera. Artista hauek ez dituzte paisaiak betikotzen, eta beraien artelanek paisaia eta natura etengabe aldatzen dagoela erakusten digute; artelan biziak dira, jai, hazi eta hiltzen direnak.

Andy Goldsworthy-k adibidez, kostaldean zutika jarri zuen harri ilara bat. Itsasgorarekin batera etorritako olatu batek, tamalez, eusten ziren harriak

bota zituen artelanaren izate materiala amaituz. Denboran irauten duten artelanek ez bezala, artelan mota honek bizitza laburra du. Artelanaren izate materiala desagertzen da, ez ordea artelanaren benetako helburua, hau da, naturaren indar eta aldakortasunaz jabetzea. Beraz, ingurugiro artelan hauek ezin dira komertzializatu. Artelan mate-

rialia galkorra da, baina arte kontzeptuak irauten du.

Nire ikuspegitik, ingurugiro arteak bizitzaren ikuspegi ekozentriko batera hurbiltzen gaitu, zeinetan natura den bizitzaren ardatza; gaur egun arteak indarrean dirau duen ikuspegi homozentrikoetatik, hau da, gizakia unibertsoaren ardatz izatearen pentsamendutik aldentzen gaitu.

Agustin Ibarrolak Omako basoa margotu zuenean ingurugiro artelan bat

egin zuen. Euskal Herriaren industrializazio eta kutsadurarekin erlazio naturik egon diren pinudi gorrotatuetan oinarrituz eraikitako artelanak, pinudia ikuspegi magiko batetik ikusten lagundu zigun, eta lan honi esker, pinudiek ere badutela bere edertasuna erakutsi zigun. Zalantzarik gabe, benetako lorpena.

Omako basoak bere sorpenetik gaur arte izan duen eboluzioa aztertuz, esan daiteke artelan honen benetako izaera ez dela ulertu. Basora erosoago hurbiltzearen pista bat eraiki zen, enborretan margoturik zeuden irudiak zuzenean ikus zitezien puntu zehatzetan seinaleak jarri ziren, basoaren magia mugatuz; eta azkenik, margoak berriz margotu zituzten.

Nire ikuspegitik eta Omako basoa ingurugiro arte lan bat bezala ulertuz, ezin

daiteke margoak berriz margotzea arrazoitu. Artelan hau ez da artelan konbentzional bat, eta bere izatea margoak jasotzen dituzten zuhaitzen bizitzarekin loturik dago. Beraz, obra bizi bat da eta bizitza oro bezala, heriotza datorkio.

Margoak desagertzen hasi zirenean, artelan konkretu honen bukaera zeto-rrera ulertu behar izan zen eta benetan hunkigarria, arte modu honen hedapena gertatzea izan zitekeen, beste baso edo ingurune kutsatu edo gutxietsiei arte modu honek eman diezaiekeen magia zabalduz.

Tamalez, hau ez da gertatu eta irau ezin duen artelan horri irauarazi nahian dabilta.

Basoa bizirik dago eta etengabeko mugimenduan. Noizbait pinu hauek lehortuko dira eta zer gertatuko da zuhaitzak hiltzean? Artelanak irau dezan, zuhaitzak baltsamatuko al dituzte?

Oraingoan zuhaitz gutxi batzuk moztu dira eta badirudi gertaera hau atentatu kultural bat izan dela. Pinudi baten izatearen etorkizuna zuhaitzen mozketan datza eta zuhaitzen mozketa, artelanaren atal bat bezala ulertua izan zitekeen.

Benetako atentatu kulturala ordea, Omako basoa ingurugiro artelan bezala ez ulertzea da eta lan hau etengabe irau nerazten saiatzea.

“
Denboran irauten duten artelanek ez bezala, artelan mota honek bizitza laburra du. Izate materiala desagertzen da, ez ordea benetako helburua

“
Omako basoaren eboluzioa aztertuz, artelan honen benetako izaera ez da ulertu; irau ezin duen artelan horri irauarazi nahian dabilta

Haurren eskubideen inguruko hitzarmena

• AITZIBER AZKONDO ZAITEGI •

[EUSKAL HERRIKO UNICEF BATZORDEKO KIDEA]

Gaur azaroak 20, hamar urte bete dira Nazio Batuen Batzar Orokorrak Haurren Eskubideen Aldeko Hitzarmena onartu zuela. Ordutik, negoziazio eta konpromiso handiak igarri dira, batez ere gaur egun hitzarmena 191 herrialdek berretsi dutela ohartzen bagara. Hitzarmena, lau ataletan biltzen diren 54 artikuluz dago osatua: biziraupen eskubidea, garapen eskubidea, babes eskubidea eta parte hartzearen eskubidea. Historian, bizkorren onartu izan den Giza Eskubideen inguruko dokumentua da. Egia esan, triste egon beharko genuke, 2000. urtearen atarian izanik, haurrak, babes eta arreta berezia jasotzeko, horrelako hitzarmen baten beharrea izateagatik baina errealitateak horrela eskatzen du. Mundu zabalean ematen diren zentzugabeko bortxaketak direla eta, hitzarmena aurrerapauso handia da.

Jakin ezazue, hitzarmena berresteko garaian, horrela erabaki zuten gobernu

guztiek, hitzarmenean bertan adierazten diren legeak bete eta betearazteko konpromiso legala hartu zutela. Hitzarmenean aipatzen den lez, badakigu egoera ez dela goizetik gauera aldatuko, baina denborarekin, garapen bidean diren herrialdeen portzentaia negargarri horiek nolabaiteko aldaketa igarri dute. Adibide batzuk aipatzearen, 1960. urtean, garapen bidean dauden herrialdeetan lehen hezkuntza haurren %48k jasotzen zuten eta 1997ko urteko datuei begiratzen badiogu, dagoeneko %80 lehen hezkuntza mailan daude. Munduko populazioaren %72k ur edangarria izateko aukera dute, eta %44k saneamendu-bideak. Hilkortasuna murriztu egin da eta eskolatze tasa %80ra handitu.

Horren esperantzarriak ez diren beste hainbeste adibide topa ditzakegu, munduko txirotasun tasaren erdia 18 urtetik beherakoek osatzen dutela edo egunean 35.000 haur hiltzen direla gogoratzen badugu.

UNICEFek, mundu mailan Hitzarmenaren abiapuntutik egiten du lan. Hitzarmena da negoziazio eta garapen heziketa programa guztien sorburu. Gizarte askotan herritarrek hitzarmenaren berri handirik ez dutela badakigu. Askotan apenas ezagutzen dute. Hori gaitzestea da UNICEFen eta, gure esparrura mugatzen bagara, Euskal Herriko UNICEF Batzordearen helburuetariko bat.

Zorionez, Euskal Herria ez da garapen bidean bizi eta herrialde industrializatu, ekonomikoki autosufiziente, kultura maila handiduna eta beste hainbat eragin sozialen jabe da. Hala ere, gabezia handiak ikus ditzakegu gure gizarteko haurren artean: tratatu fisiko eta psikologikoak, esplotazio sexuala, eskolaporruta eta hainbat arrisku egoera nabarmendu ditzakegu. Hirugarren munduarekin konparatuta behar ezberdinak, baina beharra izaten jarraitzen dute.

Bestalde, ez dut aipatu gabe utzi nahi

euskal biztanleriak erakusten duen hego lurraldeekiko elkartasuna; urtean behar lurralde horietara abiatzen diren euskal kooperanteen lana, Jaurlaritzak eta gainontzeko instituzioek igortzen dituzten laguntzak eta euskal Gobernuak Kanpoko Erakundeek egiten duten lana benetan azpimagarria da, zentzu guztietan gainera. Tamalez egoerak aztertzen baditugu, iparraldeko herrialdeetatik bideratzen den laguntza guztia gutxi da gaur egun.

Horren inguruan pentsa dezagun, eta hitzarmenari kasu egin diezaiozun, jaun-andreok. Ez baitago hain urrun jogan beharrik haurren sofrimendua ezagutzeko. Ea beste hamar urte pasatu ondoren egiten den munduko haurren egoeraren azterketak datu pozgarriak ekartzen dizkigun. Haurra objektu baino eskubide subjektu dugu eta horrela jakinarazi behar zaio. Batez ere, egunean hiltzen diren 35.000 haurren heriotzak eragotz ditzaketan gobernuai.